

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDALA

Zumaiako Udalean hutsik geratu den Idazkari lanpostua (bigarren mailakoa), bitarteko funtzionario batek betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia egitea, oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez, plaza hori gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionario batek bete arte.

Alkate udalburuak honako hau ebatzi du, 355/2022 dekretuaren bidez:

Lehena. Zumaiako Udalean hutsik geratu den idazkari plaza (bigarren mailakoa), oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez bitarteko funtzionario izaeraz betetzeko deialdia onartzea.

Bigarrena. Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarriak ebazpen honen eranskin gisa gehitu dira.

Hirugarrena. Deialdi hori eta dagozkion oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Zumaiako Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du.

ERREKURTSOAK

— Erabaki horren aurka, eta auzi errekurtsua jarri aurretik, interesdunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote alkateari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoaren arabera. Deialdia egiteko epea hilabetekoa izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

— Hala ere, berraztertze errekurtsuaren ordez edo berraztertze errekurtsua ebatzeko erabakiaren aurka eginez gero, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekurtsuak Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian aurkeztu beharko dira. Bestalde, administrazioak berraztertze errekurtsua ebatzen ez badu, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dute sei hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua jartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Hori guztia interesdunaren eskubideak hobeto defendatzeko egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu jartzeari kalterik egin gabe.

Zumaia, 2022ko martxoaren 22a.—Alkatea. (1711)

Lehena. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua honako hau da: Zumaiako Udalean hutsik dagoen Idazkari lanpostua (bigarren mailakoa) bitarteko funtzionario batek betetzeko hautaketa prozesua egitea, oposizio-lehiaketa sistema bitartez, plaza hori gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionario batek bete arte.

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Convocatoria para la cobertura mediante sistema de concurso-oposición y con carácter de interinidad del puesto de Secretario/a (clase segunda) que ha quedado vacante en el Ayuntamiento de Zumaia, hasta que sea cubierta por funcionario o funcionaria de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Mediante Decreto 355/2022 el Alcalde-Presidente ha resuelto:

Primero. Aprobar la convocatoria para la cobertura mediante sistema de concurso-oposición, en régimen de interinidad de la plaza de Secretario/a (clase segunda) que ha quedado vacante en el Ayuntamiento de Zumaia.

Segundo. Aprobar las bases que regirán dicha convocatoria. Las bases se adjuntan como anexo de esta resolución.

Tercero. Publicar dicha convocatoria y sus correspondientes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa así como en el Tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento de Zumaia.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

RECURSOS

— Contra este acuerdo, y previo al contencioso, las personas interesadas podrán presentar recurso de reposición ante el Alcalde, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. El plazo para el mismo será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación del acuerdo.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la publicación del acuerdo. Los recursos deberán presentarse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo en el plazo de seis meses, contados a partir de la fecha de interposición del recurso de reposición.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente para la mejor defensa de los derechos de la persona interesada.

Zumaia, a 22 de marzo de 2022.—El alcalde. (1711)

Primera. Objeto de la convocatoria.

La presente convocatoria tiene por objeto la realización del proceso selectivo para la provisión, por el sistema de concurso-oposición, del puesto de Secretario/a (clase segunda) vacante en el Ayuntamiento de Zumaia, por un funcionario interino, hasta su cobertura por un funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Plaza hori Zumaiako Udaleko plantillan txertatuta dago; eta lanpostua honela definituta dago lanpostuen zerrendan:

Lanpostua: Idazkaria.

Mota: Berezia.

Eskala: Izaera nazionalako gaikuntza.

Azpieskala: Idazkaritza.

Maila: Bigarrena.

Sailkapen taldea: A1.

Hizkuntza eskakizuna: 4, nahitaezkoa.

Derrigortasun data: 1990-12-27.

Osagarri berezia: 25.841,06 €.

Destino osagarriaren maila: 27.

Bigarrena. Parte hartzeko baldintzak.

Hautaketa probetan parte hartu ahal izango dute eskaera orriak aurkezteko epearen azken egunean honako baldintza hauek betetzen dituzten izangaiek:

– Espainiako nazionalitatea izatea.

– 16 urte beteak edukitzea eta nahitaez erretiratzeko adina ez gainditzea.

– Lanpostuko zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea (baldintza hori dagokionean egiaztatuko da mediku azterketaren bidez).

– Diziplina espediente batez edozein administrazio publiko edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzuetik bereizita ez egotea, ezta ebazpen judicialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaiak erabatekoa edo berezia izatea ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko; edo langile lan kontratadunen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak bete-zeko.

– Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batekin (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua onartutakoak) A1 azpialdeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko eskatzen duen unibertsitate titulua edukitzea; hau da, lizentziatura edo graduak titulua edukitzea, edo hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

– Atzerriko titulazioen kasuan, beren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da. Horrelakorik ez dute beharko, araututako lanbideen eremuan, Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen arabera aitortutako lanbide kualifikazioa dutenek.

– 4. edo 3. hizkuntza eskakizuna (HE) egiaztatzen duen agiria edukitzea.

Bete nahi den lanpostuak derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuna dauka esleitura; horrenbestez, 4. HE izatea ezinbestekoa da lanpostua betetzeko (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 98. artikulua).

Hala eta guztiz ere, izangai batek berak ere ez badu adierazitako 4. HE egiaztatzen, lanpostuari 3. HE aplikatuko zaio, soil-soilik deialdi honetan betetzeko eta sortuko den lan postu sartzeko ondorioetarako (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikulua).

Hortaz, 3. HE daukatela egiaztatzen duten izangaiek ere parte hartu ahal izango dute hautaketa prozesu honetan.

Eskaera orriak aurkezteko epearen bukaeran, oinarri honetan aipatutako baldintza guztiak bete beharko dira; eta egoera horri eutsi egin beharko zaio lanpostuaz jabetu arte, bitarteko funtzionario izendatu ondoren.

Dicha plaza está integrada en la plantilla del Ayuntamiento de Zumaia y el puesto está definido en la RPT como:

Puesto: Secretario/a.

Tipo: Especial.

Escala: Habilitación de carácter nacional.

Subescala: Secretaría.

Clase: Segunda.

Grupo de clasificación: A1.

Perfil lingüístico: 4 preceptivo.

Fecha de preceptividad: 27-12-1990.

Complemento específico: 25.841,06 €.

Nivel de complemento de destino: 27.

Segunda. Requisitos de participación.

Podrán tomar parte en las pruebas selectivas los aspirantes que al último día del plazo de presentación de solicitudes cumplan los siguientes requisitos:

– Tener la nacionalidad española.

– Tener cumplidos 16 años y no superar la edad de jubilación forzosa.

– La aptitud funcional para el desempeño de las funciones del puesto de trabajo (requisito que se acreditará cuando proceda mediante reconocimiento médico).

– No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado.

– Estar en posesión del título universitario exigido por el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, para el acceso a los cuerpos y escalas del subgrupo A1, es decir, estar en posesión o haber abonado los derechos para su adquisición de la licenciatura o grado.

– En el caso de titulaciones extranjeras, deberá estar en posesión del documento acreditativo de su homologación. No lo necesitarán quienes, en el ámbito de las profesiones reguladas, cuenten con una cualificación profesional reconocida conforme a las disposiciones del Derecho de la Unión Europea.

– Estar en posesión de la acreditación del perfil lingüístico 4 o 3 (PL3).

El puesto que se pretende cubrir tiene asignado el perfil lingüístico 4 preceptivo, por lo que la posesión del PL4 es requisito indispensable para su cobertura (artículo 98 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca).

No obstante, si ninguno de los aspirantes acredita el citado PL4, al puesto se le aplicará únicamente el PL3 a los efectos de su cobertura en esta convocatoria y su inclusión en la bolsa de trabajo que se cree (artículo 43.2 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi).

Por tanto, también podrán participar en este proceso selectivo los aspirantes que acrediten tener PL3.

Al final del plazo de presentación de instancias deberán cumplirse todos los requisitos señalados en esta base, situación que deberá mantenerse hasta la toma de posesión tras el nombramiento de funcionario interino.

Hirugarrena. Eskaera orriak.

1. Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabide normalizatuak oinarrien I. eranskinean agertzen den ereduaren araberrakoak izango dira eta Zumaiaiko Udaleko alkateari zuzenduko zaizkio. Eskabideek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Hautagaiek deialdian parte hartzea eskatuko dute eta bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere instantziak aurkezteko epe amaierako datarako.

b) Hautagaiek, eskabidean adierazi beharko dute oposizioa ariketak Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Halaber, desgaitasunen bat duten pertsonen hautaprobak egiteko behar dituzten denbora eta baliabide egokitzapenak eskatu beharko dituzte eskabidean.

c) Eskabideak, behar bezala beteta, modu hauetako batean aurkeztu behar dira:

– Zumaiaiko Udaleko erregistro elektronikoa: www.zumaia.eus egoitza elektronikoa.

– Zumaiaiko Udaleko aurrez aurreko erregistroan (Foruen plaza 1, 20750 Zumaia).

– Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa, eta sektore publikoaren parte diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoa.

– Erregistro gaitan laguntzeko bulegoetan.

– Posta bulego batean: gutun azal ireki batean eraman behar da eskabidea postetxeko enplegatuek data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera Zumaiaiko Udaleko Erregistroan.

– Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

d) Eskabideak honako oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 20 egun baliodunen barruan aurkeztuko dira.

2. Eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:

– NANaren fotokopia.

– Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

– 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna (HE) egiaztatzeko agiriaren fotokopia, bigarren oinarrian xedatutakoari jarraikiz.

– Bidezkoa bada, desgaitasunen bat duten pertsonen behar dituzten denbora eta baliabide egokitzapenak justifikatzeko agiriak: Desgaitasun maila kalifikatzeko eskumena duen organo teknikoaren teknikari fakultatiboaren irizpena, Epaimahaiak eskatutakoa bidezkoa den ala ez baloratu ahal izan dezan.

Laugarrena. Izangaiak onartzea.

1. Eskaera orriak aurkezteko epea amaituta, alkatearen ebazpenaren bidez onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Zumaiaiko Udaleko iragarki taulan eta Zumaiaiko Udalaren webgunean (www.zumaia.eus).

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta ondorengo egunetik hasita, izangaiak erreklamazioak aurkezteko edo eskabideak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango dute.

Erreklamaziorik edo zuzenketarik ez balego, behin-behineko zerrenda hori, besterik gabe, behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik edo zuzenketarik balego, onetsiak ala ezetsiak izango dira behin betiko zerrenda onartzeko hartu beharko den beste ebazpen batean. Aipatu ebazpena lehen adierazitako era berean argitaratuko da.

Tercera. Impresos de solicitud.

1. Las solicitudes normalizadas para tomar parte en el proceso selectivo se ajustarán al modelo que figura en el anexo I de las bases y se dirigirán al Alcalde del Ayuntamiento de Zumaia. Las solicitudes deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Las personas candidatas solicitarán participar en la convocatoria y deberán manifestar que reúnen todos los requisitos exigidos en la base segunda, para la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Los aspirantes deberán indicar en la solicitud la lengua oficial de la Comunidad Autónoma en la que deseen realizar los ejercicios de la oposición.

Asimismo, las personas con discapacidad deberán solicitar en su solicitud las adaptaciones de tiempo y recursos necesarios para la realización de las pruebas selectivas.

c) Las solicitudes, debidamente cumplimentadas, deberán presentarse de alguna de las siguientes formas:

– En el registro electrónico del Ayuntamiento de Zumaia: en la sede electrónica www.zumaia.eus.

– Registro presencial del Ayuntamiento de Zumaia (Foruen plaza 1, 20750 Zumaia).

– En el registro electrónico de la Administración u Organismo al que se dirijan, así como en los restantes registros electrónicos de cualquier sujeto perteneciente al sector público.

– En las oficinas de asistencia en materia de registros.

– En una oficina de Correos: la solicitud se llevará en sobre abierto para que el empleado de Correos señale fecha y sello dentro del plazo de presentación. Sólo así se entenderá que la solicitud ha tenido entrada en el Registro del Ayuntamiento de Zumaia en la fecha en que fue depositada en la oficina de correos.

– En cualquier otra forma que establezca la normativa aplicable.

d) Las solicitudes se presentarán en el plazo de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

– Fotocopia del DNI.

– Fotocopia del título solicitado para participar en la convocatoria.

– Fotocopia del documento acreditativo del perfil lingüístico 3 o 4 (PL), de acuerdo con lo dispuesto en la base segunda.

– En su caso, documentación justificativa de las adaptaciones de tiempo y medios requeridas por las personas con discapacidad: dictamen del técnico facultativo del órgano técnico competente para la calificación del grado de discapacidad, a fin de que el Tribunal pueda valorar la procedencia o no de lo solicitado.

Cuarta. Admisión de aspirantes.

1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se aprobará y publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web del Ayuntamiento de Zumaia (www.zumaia.eus) la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos por Resolución del Alcalde.

A partir del día siguiente al de la publicación de la lista provisional, los aspirantes dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para presentar reclamaciones o subsanar solicitudes.

Si no hubiera reclamaciones o subsanaciones, la lista provisional se entenderá automáticamente como definitiva. Si hubiera reclamaciones o subsanaciones, serán estimadas o desestimadas en otra resolución que deba adoptarse para la aprobación de la lista definitiva. Dicha resolución se publicará del mismo modo que la anteriormente señalada.

2. Halaber, epaimahaiaren osaketa eta lehenengo ariketa-
ren eguna, lekua eta ordua onartutako eta baztertutako izan-
gaien behin-behineko zerrenda onesteko ebazpenean zehaztuko
dira.

Bosgarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Epaimahaiburua:

– Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari bat; eta haren orde-
zkoa.

Epaimahaikideak:

– Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari bat; eta haren orde-
zkoa.

– Gaikuntza nazionalako Toki administrazioko funtzionarioen
eskalako funtzionario bat, eta haren ordezkoa.

– Beste toki administrazioetako teknikari bat, eta haren or-
dezkoa.

Idazkaria:

– Zumaiaiko Udaleko giza baliabideen eta administrazio tek-
nikaria; eta haren ordezkoa.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezia-
litatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezen
zainduko da; eta, era berean, gizona eta emakumezkoen ar-
teko parekotasuna bilatuko da.

2. Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren
1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari
eta errekusazioari buruz aipatzen dena ezarriko zaie epaimahai-
kideei.

Epaimahaiaren jardura bat etorriko da, halaber, kide anitze-
ko organoei buruz 40/2015 Legean jasota dauden xedapenekin
(15-18 artikuluekin).

Epaimahaiak erabaki dezake, bere jardunerako, aholkulari
espezialisten laguntza eskatzea, hautapen prozesuko proba ba-
tzueterako edo guztietarako. Aholkulari espezialistek hitza bai
baina ez dute botorik izango, eta haien lana mugatuko da epai-
mahaiari laguntzera, beren espezialitate teknikoetan.

3. Epaimahaia behar bezala eratutzat jotzeko, bilerak egi-
teko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko, bertan egon
beharko dute epaimahaiburuak eta idazkariak, edo horien or-
dezkoek, eta gutxienez epaimahaikideen erdiek.

Karguak hutsik daudelako, kanpoan direlako, gaixorik daude-
lako edo legezko beste arrazoiren bat tarteko dela, epaimahaibu-
rue eta horren ordezkoa epaimahaian ez baldin badaude, horiek
hierarkia, antzintasun eta adin handiena dituzten epaimahaiki-
deek ordeztuko dituzte, arestiko hurrenkerari jarraikiz.

Karguak hutsik daudelako, kanpoan direlako, gaixorik dau-
delako, edo legezko beste arrazoiren bat tarteko dela, idazkaria
eta horren ordezkoa epaimahaian ez baldin badaude, gehiengo-
aren akordioaren bidez aukeratutako epaimahaikideak egingo di-
tu idazkari lanak.

Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko esku-
bidea izango dute, idazkariak izan ezik: horrek soilik hitza izan-
go baitu. Edonola ere, aurreko paragrafoan ezarritakoari jarrai-
kiz idazkari lanetan ari den epaimahaikideak botoa emateko es-
kubideari eutsiko dio.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengo-
aren bidez hartuko dira. Berdinketak epaimahaiburu gisa dihar-
duen pertsonak izango duen kalitatezko botoak desegingo ditu.

4. Epaimahaiak erabateko autonomia izango du funtziona-
tzeko; bestalde, prozeduraren gardentasunaz eta objektibotasu-
naz, proben edukiaz eta deialdiaren oinarriak hertsiki betetzeaz
arduratuko da.

2. Asimismo, la composición del Tribunal y la fecha, lugar
y hora del primer ejercicio se determinarán en la Resolución por
la que se apruebe la relación provisional de aspirantes admiti-
dos y excluidos.

Quinta. Tribunal Calificador.

1. El tribunal calificador estará compuesto por:

Presidente:

– Un/a técnico/a de la Diputación Foral de Gipuzkoa y su
suplente.

Vocales:

– Un/a técnico/a de la Diputación Foral de Gipuzkoa y su
suplente.

– Un/a funcionario/a de la Escala de Funcionarios de Admi-
nistración Local con habilitación de carácter nacional y su su-
plente.

– Un/a técnico/a de otras administraciones locales y su su-
plente.

Secretaria:

– Técnica de recursos humanos y administración del Ayun-
tamiento de Zumaia y su suplente.

En la composición del Tribunal se velará por el cumplimiento
de los principios de imparcialidad, especialidad y profesionali-
dad, así como por la paridad entre hombres y mujeres.

2. A los miembros del Tribunal les será de aplicación lo dis-
puesto en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de oc-
tubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, sobre abstención
y recusación.

La actuación del Tribunal se ajustará también a las disposi-
ciones de la Ley 40/2015 sobre órganos colegiados (artículos
15-18).

El Tribunal podrá acordar, para su funcionamiento, solicitar
la asistencia de asesores especialistas para algunas o todas las
pruebas del proceso selectivo. Los asesores especialistas ten-
drán voz pero no voto y su labor se limitará a acompañar al tri-
bunal en sus especialidades técnicas.

3. Para que el Tribunal pueda ser considerado válidamente
constituido, celebrar sus sesiones, deliberar y adoptar sus acuer-
dos, será necesaria la presencia del Presidente y Secretario, o
quienes les sustituyan, y al menos la mitad de sus miembros.

Si por vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, el
Presidente o Presidenta y su suplente no estuvieran presentes en
el Tribunal, serán sustituidos por los miembros del Tribunal de
mayor jerarquía, antigüedad y edad, por el orden anterior.

Cuando, por vacante, ausencia, enfermedad u otra causa le-
gal, el Secretario y su suplente no estén presentes en el Tribunal,
actuará como Secretario el miembro del Tribunal elegido por
acuerdo mayoritario.

Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, excepto
el Secretario, que tendrá voz. En todo caso, el miembro del Tri-
bunal que actúe como Secretario conforme a lo establecido en
el párrafo anterior conservará su derecho al voto.

Los acuerdos del Tribunal se adoptarán por mayoría de votos
de los asistentes. El empate diluirá los votos de calidad de la per-
sona que ejerza la presidencia del tribunal.

4. El Tribunal gozará de plena autonomía en su funciona-
miento, velando por la transparencia y objetividad del procedi-
miento, el contenido de las pruebas y el estricto cumplimiento
de las bases de la convocatoria.

Horrez gain, antolamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek ezartzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu deialdia era egokian garatu dadin. Halaber, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuak direla eta hartu behar diren irizpide guztiak ezarriko ditu.

Epaimahai Kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena proposatu behar duen organoarentzat. Edonola ere, organo horrek ebazpen horiek berrikusi ahal izango ditu, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

5. Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahai Kalifikatzailearen helbidea honakoa izango da:

– Zumaiaiko Udala, Pertsonal saila. Foruen plaza 1, Zumaia.

Seigarrena. Hautaketa prozesua.

1. Oposizioaldiaren lehenengo ariketa egiteko tokia eta eguna Zumaiaiko Udaleko iragarki taulan eta udal webgunean (www.zumaia.eus) argitaratuko dira.

Gainerako ariketak egiteko iragarkiak Epaimahaiak egingo ditu, gutxienez ariketa hasi baino 48 ordu lehenago, ariketa bereko beste proba bat bada. Beste ariketa bat bada, aurrerapena 72 ordukoa izango da. Iragarki horiek udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean (www.zumaia.eus) argitaratuko dira.

2. Parte hartuko duten izangaiei ariketa bakoitzerako dei egingo zaie, eta horretarako deialdi bakarra egingo da.

Epaimahaiak ezinbestekotzat jotako arrazoiak gertatu direnean izan ezik, ezarritako egun eta orduan ariketak eta probak egitera azaldu ez diren izangaiek hautaketa prozesutik baztertu egingo dira, eta deialdi honetan izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko ditu desgaitasuna duten izangaientzat, baldin eta egokitzapena behar badute eta eskaeran horrelakorik eskatu badute, hartara, parte hartzen duten gainerako pertsonak dituzten aukera berdinak izan ditzaten, baldin eta horrekin eskatutako gaitasun maila murrizten edo gutxitzen ez bada.

Prozesuaren edozein unetan, Epaimahaiak jakiten baldin bada izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, izangai hori deialditik kanpo utziko du, interesdunari entzunaldia eman ondoren. Halaber, egun horretan bertan, horren berri emango dio hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari.

3. Epaimahaiak, une oro, behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izango die izangaiei. Hori dela eta, oposizioaldiko ariketa guztietara NAN edo, epaimahaiaren iritziz, izangairen nortasuna egiaztatzeko nahikoa izango den beste agiri ofizialen bat (pasaportea, gidabaimena, Atzeritarren Identifikazio Zenbakia, etab.) aldean dutela bertaratu beharko dira.

4. Epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketak zortzigarren oinarrian zehaztu ez den beste hurrenkera batean egitea, baita egun berean, proba bat baino gehiago egitea ere. Hurrenkera aldatzen baldin bada, Epaimahaiak izangaiei jakinaraziko die hori, gutxienez ariketa hasi baino 12 ordu lehenago.

5. Ariketa idatziak egiteko orduan, Epaimahaiak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, ahal den guztian, izangaien anonimotasuna bermatzeko.

6. Oposizioaldiko ariketa bakoitza egin ostean, eta ariketak zuzendu eta izangaien nortasuna argitu eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu baino lehen, ariketa gainditzeko gutxienezko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri ahal izango du epaimahaiak.

7. Arau orokor gisa, 3 egun baliaduneko epea ezarriko da epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik hasita, egindako azterketen berrikusketa eskatzeko edo azterketen kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Además, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá cuantas dudas surjan en la aplicación de estas bases y adoptará los acuerdos necesarios para el adecuado desarrollo de la convocatoria. Asimismo, establecerá todos los criterios a adoptar por supuestos no previstos en las bases.

Las resoluciones del Tribunal Calificador serán vinculantes para el órgano que haya de proponer el nombramiento. En todo caso, dicho órgano podrá proceder a la revisión de dichas resoluciones, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5. Para las comunicaciones y demás incidencias, la dirección del Tribunal Calificador será la siguiente:

– Ayuntamiento de Zumaia, Departamento de Personal. Foruen plaza 1, Zumaia.

Sexta. Proceso de selección.

1. El lugar y fecha de celebración del primer ejercicio de la fase de oposición se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web municipal www.zumaia.eus.

Los anuncios para la realización del resto de ejercicios se realizarán por el Tribunal con una antelación mínima de 48 horas al comienzo del ejercicio, cuando se trate de una prueba más del mismo ejercicio. Si es un ejercicio más, el adelanto será de 72 horas. Estos anuncios se publicarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal www.zumaia.eus.

2. Los aspirantes participantes serán convocados para cada ejercicio mediante una única convocatoria.

Salvo que concurren las causas de fuerza mayor previstas por el Tribunal, los aspirantes que no comparecieran a la celebración de los ejercicios y pruebas en el día y hora establecidos, serán excluidos del proceso selectivo y perderán todos los derechos que les pudieran corresponder en esta convocatoria.

El Tribunal adaptará el tiempo y los medios para la realización de los ejercicios a los aspirantes con discapacidad que lo requieran y lo soliciten en la solicitud, a fin de que puedan disfrutar de las mismas oportunidades que el resto de las personas participantes, siempre que con ello no se reduzca o disminuya el nivel de aptitud exigido.

Si en cualquier momento del proceso, el Tribunal conociera que alguno de los aspirantes no reúne los requisitos exigidos en la convocatoria, la excluirá de la misma, previa audiencia del interesado. Asimismo, ese mismo día informará de ello a la autoridad convocante del proceso selectivo.

3. El Tribunal podrá, en todo momento, requerir a los aspirantes que se identifiquen debidamente. Por ello, deberán asistir a todos los ejercicios de la fase de oposición acompañados del DNI u otro documento oficial que, a juicio del tribunal, sea suficiente para acreditar la identidad del aspirante (pasaporte, carné de conducir, Número de Identificación de Extranjero, etc.).

4. El Tribunal podrá acordar la realización de los ejercicios en orden distinto al señalado en la base octava, así como la realización de más de una prueba en el mismo día. En caso de cambio de orden, el Tribunal lo comunicará a los aspirantes con una antelación mínima de 12 horas al inicio del ejercicio.

5. Para la realización de los ejercicios escritos, el Tribunal adoptará, siempre que sea posible, las medidas necesarias para garantizar el anonimato de los aspirantes.

6. Una vez realizados cada uno de los ejercicios de la fase de oposición, y con carácter previo a la corrección de los mismos y a la determinación de la identidad y calificación de los aspirantes, el Tribunal podrá establecer el nivel de conocimientos necesario para alcanzar la puntuación mínima necesaria para superar el ejercicio.

7. Como norma general, se establecerá un plazo de 3 días hábiles, a contar desde la publicación de la resolución del Tribunal, para solicitar la revisión de los exámenes realizados o para presentar reclamaciones sobre las calificaciones de los mismos.

Oposizioaldiko ariketak:

– Lehen ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Ariketa teoriako-praktikoa.

Epaimahaiak planteatuko dituen kasu praktikoa bat edo batzuk ebazti beharko dira, baita galdera teorikoak ere, hain zuzen, II. eranskinean gai zerrendarekin eta lanpostuaren funtzioekin zerikusia dutenak.

Zumaiaiko Udalaren 2018-2022 epealdirako euskararen erabilera plana aintzat hartuta, 2018ko azaroaren 14an egindako Udalbatzaren osoko bilkuran onartua izan zena, gutxienez ariketa horietako bat euskaraz formulatu ahal izango da, eta euskaraz erantzun edo landu beharko dute hautagaiek.

Epaimahaiak oposizioegileei eskatu ahal izango die planteatutako kasuren baten inguruko defentsa egin edo argibideak eman ditzatela.

Ariketa honi, gehienez ere, 70 puntu emango zaizkio; eta gainditzeko, ezinbestekoa izango da gutxienez 35 puntu lortzea.

– Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko proba.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesioerako eta bete beharreko funtzioei nola egokitzen zaizkien ebaluatzerako bideraturiko nortasunari buruzko proba bat edo batzuk egitea izango da. Probek elkarriketa bat ere izan dezakete.

Ariketa honi 0 eta 10 puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Gutxienez 5 puntu lortu beharko dira proba gainditzeko.

Zazpigarrena. Euskara.

Euskararen ezagutza maila egiaztatuko da kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna (4. ala 3. HE) izatea egiaztatzen duen agiri hauetakoren bat aurkeztuta: IVAPek emandako ziurtagiria; edo azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak –euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parakatzen denak– ezarritakoaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiriak edo agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzerakoan 3. HE egiaztatuta zeukaten izangaiek gerora 4. HE egiaztatzen badute, dagokion egiaztagiria aurkeztu ahal izango dute oposizioaldia amaitzen den arte.

Zortzigarrena. Lehiaketaldia.

Oposizioaldiaren behin betiko emaitzak argitaratzearekin batera, 5 egun balioduneko epea emango da merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko. Horretarako, www.zumaia.eus webgunean argitaratuko den eredu erabili beharko da.

Dena dela, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN iragarkian eskaerak aurkezteko finkatutako azken egunaren aurretik lortutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Lehiaketaldia ez da baztertzaila izango, eta gehienez ere 25 puntu emango dira. Alegatu eta egiaztatutako merezimenduak, ondoren zehaztuko direnak, aztertu eta baloratuko dira, eta bakoitzari dagokion puntuak emango zaizkio, merezimenduei buruzko honako baremo honen arabera:

1.1. Esperientzia. Gehienezko puntuazioa 20 puntu. Ez dira sartuko bekak eta laneko praktikak.

a) Toki Administrazio Publikoan emandako zerbitzuak, gaitzuntza nazionala Toki Administrazio funtzionarioentzako, honako azpieskala hauentzako, gordetako lanpostuetan: idazkaritza edo idazkaritza-kontuhartzailatza, 0,75 puntu hilabete oso bakoitzeko. Hortik beherako denbora zatiak ez dira kontatuko. Gehienez ere 20 puntu.

b) Edozein Administrazio publikotan emandako zerbitzuak, Administrazio Orokorreko teknikari, Administrazio Bereziko goi

Ejercicios de la fase de oposición:

– Primer ejercicio: obligatorio y eliminatorio. Ejercicio teórico-práctico.

Habrà que resolver uno o varios supuestos prácticos que planteará el Tribunal, así como las preguntas teóricas, relacionados con el temario del anexo II así como con las funciones del puesto.

Teniendo en cuenta el plan de uso del euskera del Ayuntamiento de Zumaia para el periodo 2018-2022, aprobado por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 14 de noviembre de 2018, como mínimo uno de esos ejercicios se podrá formular en euskera y se deberá responder o desarrollar en dicho idioma.

El Tribunal podrá requerir a los opositores la defensa o aclaración de alguno de los supuestos planteados.

Este ejercicio se valorará hasta un máximo de 70 puntos, siendo imprescindible para su superación obtener un mínimo de 35 puntos.

– Segundo ejercicio: obligatorio y eliminatorio.

Prueba de adecuación al perfil del puesto.

Consistirá en la realización de una o varias pruebas psicotécnicas de personalidad, encaminadas a valorar la adecuación de los aspirantes al perfil profesional del puesto y a las funciones a desempeñar. Las pruebas podrán incluir una entrevista.

Este ejercicio se calificará de 0 a 10 puntos. Para superar el ejercicio será necesario obtener un mínimo de 5 puntos.

Séptima. Euskera.

El nivel de conocimiento del euskera se acreditará mediante la presentación de alguno de los siguientes documentos acreditativos del correspondiente perfil lingüístico (PL4 o PL3): certificado expedido por el IVAP, o aquellos otros certificados o documentos equivalentes conforme a lo establecido en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, por el que se convalidan títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y se equiparan a los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

En el caso de que al final del plazo de presentación de solicitudes las personas aspirantes tengan acreditado el PL3 y que acrediten posteriormente el PL4, podrán presentar el correspondiente certificado antes de que finalice la fase de oposición.

Octava. Fase de concurso.

Con la publicación de los resultados definitivos de la fase de oposición se abrirá un plazo de 5 días hábiles para la alegación y acreditación de méritos. Para ello se deberá utilizar el modelo que se publicará en la web www.zumaia.eus.

En todo caso, únicamente se valorarán los méritos obtenidos con anterioridad a la fecha límite fijada para la presentación de solicitudes en el anuncio del BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio y se valorará hasta un máximo de 25 puntos. Se analizarán y valorarán los méritos alegados y acreditados que se detallan a continuación, asignándose a cada uno de ellos la puntuación correspondiente, de acuerdo con el siguiente baremo de méritos:

1.1. Experiencia. Puntuación máxima 20 puntos. No se incluirán las becas y prácticas laborales.

a) Servicios prestados en la Administración Pública Local, desempeñando puestos de trabajo reservados a funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional, de las siguientes subescalas: Secretaría o Secretaría-Intervención, 0,75 puntos por mes completo. Las fracciones de tiempo inferiores no se contarán. Hasta un máximo de 20 puntos.

b) Servicios prestados en cualquier Administración Pública, en plazas de Técnico de Administración General, Técnico Supe-

mailako teknikari, Administrazio goi mailako kidegoko teknikari edo goi mailako teknikarien kidegoko teknikari lanpostuetan eskainitako zerbitzuak, 0,50 puntu hilabete oso bakoitzeko. Hortik beherako denbora zatiak ez dira kontatuko. Gehienez ere 10 puntu.

Laneko esperientzia Administrazio Publikoak emandako egiaztagiriaren bitartez egiaztatuko da. Bertan jasota geldituko dira egindako lanak, eskainitako zerbitzuak, lanaldia, eta hala badagokio, kontratazioaren modalitatea.

Izangaiek, gainera, Gizarte Segurantzak emandako lan bizi-tza aurkeztu beharko dute, eta atzerrian egindako lanak baldin badira, dagokien erakunde publikoak jaulkitakoa.

Interesdunek alegatu egin beharko dituzte Zumaiako Udalean eskainitako zerbitzuak; hala ere, ez dituzte egiaztatu beharko.

Zerbitzuak modu honetan zenbatuko dira:

– Zerbitzuak lanaldi arruntaren barruan eskaini badira, erabili den formula izango da lan egindako urte osotzat 360 egun hartzen dituen, eta lan egindako hilabete osotzat, berriz, 30 egun hartzen dituen.

– Zerbitzuak lanaldi partzalean edo lanaldi murriztuan eskaini baldin badira, kontaketa proportzionalki egingo da egiaz eskaini den denboraren arabera. Familia kontziliazioagatiko murrizketak salbuetsita egongo dira.

1.2. Prestakuntza osagarria, lanpostuaren funtzioekin bat baldin badator, eta epaimahaiaren iritziz, izangaien hobekuntza profesionalaren mesederako bada. Gutxienez 10 orduko ikastaroak baloratuko dira, eta 0,1 puntu emango dira 10 orduko. Gehienez ere, 5 puntu emango dira.

Ez dira baloratuko titulazio akademiko jakin bat eskuratzeko ikasketa planaren parte diren ikastaroak. Prestakuntza ikastaroak eman dituen erakundearen ziurtagiriekin egiaztatu beharko da eta, bertan, ikastaroen iraupena orduetan zehaztu beharko da. Ez dira aintzat hartuko ikastaroen agiri bidezko egiaztapenak, baldin eta horietan iraupena ageri ez bada.

Ikastaroak edo tituluak baloratu ahal izateko, erakunde ofizialek emandakoak edo hauek homologatuak izan beharko dute.

2. Merezimenduak baloratu eta Zumaiako Udalaren iragarki taulan nahiz webgunean (www.zumaia.eus) argitaratu ostean, 3 egun balioduneko epea emango da lortutako puntuazioaren kontrako erreklamazioak jartzeko.

Bederatzigarrena. Prozesuaren azken kalifikazioa eta berdinketa.

1. Behin betiko sailkapenaren hurrenkera oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuazioen baturaren bidez zehaztuko da.

Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak honako irizpide eta ordena hauen arabera ebaztuko du:

a) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan, eta halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko, gaitasun bera izanik, administrazio kidego, eskala eta kategorietan, emakumeen ordezkari-tza % 40tik beherakoa denean, emakumeei emango zaie lehentasuna, salbu eta beste hautagaian neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak badaude, sexuan oinarritutako diskriminazio-rik ez dutenak, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafokoa ezarrita ere izangaiek berdinduta jarraitzen baldin badute, hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

– Lehenengo, oposizioaldiko lehenengo ariketan puntuazio handiena lortu duenaren alde egingo da.

– Bigarren, lehiaketaldiko esperientziaren atalean puntuazio handiena lortu duenaren alde egingo da.

rrior de Administración Especial, Técnico del Cuerpo Superior de Administración o Técnico del Cuerpo Superior Facultativo, 0,50 puntos por mes completo. Las fracciones de tiempo inferiores no se contarán. Hasta un máximo de 10 puntos.

La experiencia laboral se acreditará mediante certificación expedida por la Administración Pública. En él quedarán reflejados los trabajos realizados, los servicios prestados, la jornada de trabajo y, en su caso, la modalidad de contratación.

Los aspirantes deberán presentar, además, vida laboral expedida por la Seguridad Social y, si se trata de trabajos realizados en el extranjero, por la entidad pública correspondiente.

Las personas interesadas deberán alegar los servicios prestados en el Ayuntamiento de Zumaia, si bien no deberán acreditarlos.

Los servicios se computarán de la siguiente manera:

– En el caso de que los servicios se hayan prestado bajo jornada ordinaria, la fórmula a utilizar será la que comprenda 360 días como año completo trabajado y 30 días como mes completo trabajado.

– Si los servicios se hubieran prestado a tiempo parcial o en jornada reducida, el cómputo se realizará proporcionalmente al tiempo realmente ofertado. Las reducciones por conciliación familiar estarán exentas.

1.2. La formación complementaria, siempre que sea acorde con las funciones del puesto y redunde, a juicio del Tribunal, en beneficio de la mejora profesional de los aspirantes. Se valorarán cursos de un mínimo de 10 horas y se puntuará con 0,1 puntos por cada 10 horas. Se valorará hasta un máximo de 5 puntos.

No serán objeto de valoración los cursos que formen parte de un plan de estudios para la obtención de una titulación académica. Se acreditará la formación mediante certificados de las entidades que hayan impartido los cursos y se deberá especificar el número de horas de cada uno. No se tomarán en consideración aquellas acreditaciones documentales de los cursos de formación en las que no conste su duración.

Para poder valorar los cursos o títulos deberán haber sido impartidos por organismos oficiales u homologados por ellos.

2. Una vez valorados los méritos y publicados en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web www.zumaia.eus, se concederá un plazo de 3 días hábiles para interponer reclamaciones contra la puntuación obtenida.

Novena. Calificación final del proceso y empate.

1. El orden de clasificación definitiva se determinará por la suma de las puntuaciones obtenidas en las fases de oposición y concurso.

En caso de empate, el Tribunal resolverá conforme a los siguientes criterios y órdenes:

a) En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en el artículo 20.4.a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, con la misma capacidad, en los cuerpos, escalas y categorías de la Administración, cuando la representación de las mujeres sea inferior al 40 %, se dará prioridad a las mujeres, salvo que concurran en el otro candidato razones que justifiquen la no aplicación de esta medida, que no constituyan discriminación por razón de sexo, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades de acceso al empleo.

En el supuesto de que se mantuviera el empate establecido en el párrafo anterior, el orden se establecerá de acuerdo con los siguientes criterios:

– En primer lugar, se optará por quien haya obtenido mayor puntuación en el primer ejercicio de la fase de oposición.

– En segundo lugar, se optará por quien haya obtenido mayor puntuación en el apartado de experiencia de la fase de concurso.

